

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO UDALA

Udal-titulartasuneko zerbitzu anitzeko eraikinaren eta haren atxikitakoen kudeaketa alokatzea

Udalaren Osoko Bilkurak 2022ko uztailaren 12an hartutako erabakiarekin bat etorritik, iragarki honen bidez lehiaketarako deialdia egiten da. Lehiaketa horren bidez, udal-titulartasuneko zerbitzu anitzeko eraikinaren kudeaketa alokatuko da, Udalerriko eta Eskualdeko Interpretazio Zentrorako eta horri lotutako Landa Merkataritzako eta Ostalaritzako jarduerarako lokaletarako, era berean, autokarabanen eta beste ibilgailu batzuen aparkalekua, erabilera publikoko komunak eta komunitateko konpostaje-zentroa kudeatuko dira. Instalazio horiek Urizaharreko 1 poligonoko 924 eta 918 katastro lurzatietan (Urizaharra etorbidea, 17, Urizaharra) daude. Udal Inbentarioan ondare ondasun kalifikazioa dute. Hona lehiaketa horri buruzkoak:

1. Entitate esleitzaila: Urizaharreko Udala.

a) Espedientea izapidetuko duen bulegoak: udal idazkaritza.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

1) Bulegoa: udaletxea.

2) Helbidea: Frai Jacinto Martínez plaza 2.

3) Herria eta posta kodea: Urizaharra. 01212.

4) Telefonoa: 945367004.

5) Posta elektronikoa: penacerrada@ayto.araba.eus.

6) Kontratazailearen profilarik Interneteko helbidea: www.penacerrada-urizaharra.eus edo www.contratacion.euskadi.eus.

C) Espedientearen zenbakia: 1/2022.

2. Kontratuaren xedea: udal-titulartasuneko zerbitzu anitzeko eraikinaren kudeaketa errentan ematea, udalerriko eta eskualdeko interpretazio-zentrorako eta horri lotutako landa- eta ostalaritza-merkataritzaren jarduerarako lokaletarako, eta bertatik kudeatzea autokarabanen eta beste-lako ibilgailuen aparkalekua, erabilera publikoko komunak eta komunitateko konpostaje-zentroa.

A) Tokia: Urizaharra.

B) Helbidea: Urizaharra etorbidea 17.

C) Herria eta posta kodea: Urizaharra. 01212.

D) Errentamendu-epea: bi urte; bi alderdiek hala adostuz gero, gehienez ere bost luzapenetan luzatu ahal izango da, eta, beraz, gehieneko iraupena, luzapenak barne, zazpi urtekoa izango da.

3. Izapidetzea eta prozedura:

A) Izapidetzea: arrunta.

B) Prozedura: lehiaketa publikoa.

C) Esleitzeko irizpideak: eskaintza ekonomiko onena, preziorik altuenean, hainbat esleipen irizpiderekin:

1. Preziorik onena: Gehienez, 50 puntu.

Aurkeztutako eskaintzak baloratuko dira; eta horrela eskaintzarik altuenari puntuazioarik altuena emango zaio.

Gainerakoak modu proportzionalean baloratuko dira, formula honen arabera:

$\text{Eskaintza} \times 50 / \text{eskaintzarik onena} = \text{puntuazioa}$.

2. Auto-karabanetarako aparkalekuari buruzko galderei erantzuteko denbora: 10 puntu.

Gehienez ere 2 orduko epean erantzun behar da, 9:00etatik 22:00etara bitarteko ordutegiaren barruan, 2 puntu baloratuko da arreta-epea 20 minutuz murrizten den bakoitzeko, eta 10 puntu emango dira gehienez.

3. Merkataritzaren, komunen, interpretazio-zentroaren eta autokarabanen eta beste ibilgailu batzuen aparkalekuaren arretarako zerbitzuen ordutegia luzatzea: 15 puntu.

15 puntu emango dira, hau da, puntu 1 astero gutxienekoa igotzen den ordu bakoitzeko; beraz, 15 puntu emango dira asteako 15 orduz luzatzeagatik.

4. Eskualdeko produktu tipikoak saltzeko konpromisoa, 15 puntu.

Produktuei 15 puntu emango zaizkie gehienez, honen arabera:

- Urizaharreko salgaiak: 3 puntu sailgaiko.
- Mendialdeko Koadrilako gainerako salgaiak; 2 puntu sailgaiko.
- 20 kilometro barruko salgaiak: 1 puntu sailgaiko.

Eskualdeko salgai dira Urizaharrean, Mendialdeko Kuadrillako gainerako udalerrietan eta gehienez 20 kilometro barruko udalerrietan ekoitzi eta merkaturatutako salgaiak, hala nola Urizaharreko ogia, lekaleak, patatak, ezitia, ardoa etab.

5. Saltokietan saltzen diren salgaiak etxez etxe banatzeko zerbitzua ematea udalerriko eta hamar kilometro barruan dauden beste udalerririk batzuetako herriei (kilometroko -joanekobidaia baino ez da kontuan hartuko 0,40 euro kobratuko da): 10 puntu.

4. Alokatzearen zenbatekoa:

A) alokatzearen zenbatekoa: 127,80 euro hilean (BEZa barne).

5. Fidantzak:

A) Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

B) Behin betikoa: 2.000 euro.

6. Eskaintzak aurkeztea: Urizaharreko Udalaren bulegoetan -Frai Jacinto Martinez plaza, 2. zenbakia, Urizaharra- 10: 00etatik 14: 00etara, asteleheneetik ostiralera, hogeitun egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

7. Dokumentazioaren azterketa: Urizaharreko Udalaren bulegoetan, aurreko atalean adierazitako ordutegian eta kontratatzailearen profilean: (www.penacerrada-urizaharra.eus edo www.contratacion.euskadi.eus) lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaintza erdua: onetsitako administrazio klausulen pleguan zehazten dira.

Deialdiari buruzko argibideak eta administrazio klausulen eta preskripzio teknikoaren agiriak eskura daitezke Kontratazio profilean: www.penacerrada-urizaharra.eus edo www.contratacion.euskadi.eus.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Urizaharrean, 2022ko uztailaren 13an

Alkatea

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO